

## denboraren edertasuna (09-05-11)

---

Jaten ez dudanean,  
burukomin honek gogorazten dit  
zein beharrezkoa den elikatzea.  
Eta hainbeste  
gose greba eginikoen irudiak  
datozkit kortex prefrontalera  
hipokanpotik ihesi, korrikan.

Gero eta zaharragoa nago.  
Gero eta argiago  
gero eta nekatuago  
gero eta benetakoago  
gero eta geroago.  
Geroa orainago bihurtzen  
eta ni lehenaldia izaten.

Eta geroalditik lehenaldirako bidaian  
oraina dago,  
eta orain bai.  
Zein ona naizen ikusten dut  
erdi ona bada ere,  
behintzat, ez da erdi-txarra.

